

KOMIK'EN SARIKETEAK

Gure aldi onetan irudimenari indarra emoten dautsoe albiste-bideak naiz eziketa-arloko lanak. Au bearrezko gauzea zan, len adimena ta oroimena oso-osoan indartu eta irudimena baztertuta geratzen zalako baiña or arrisku aundi bat ikusten da ezibide arlorako: Jokabide orrek sortzen dauan giza-eredua ez da lengoak izan ziralakoa eta gizaldien arteko alkar ulertzea gaitxagoa izaten da eta gaiñera gizonaren barrumiñak eta griñak burubide zuzenaren menpean izatea lortzen ez ba'da, sortzen dan giza-eredua aldakorra ta gora-bera aundiak dituana izango dala. Burubidezko jokabidea iruankorragoa ta oiñarrituagoa izaten da.

Dana dala, aldian aldiko izan bear da eta irudien mundu onetara sartzea baiño beste biderik ez dago gaur, adimena ondo eratzen egin bear dan alegiña alboratu barik, al dan neurrian.

Irudien mundu onetan ezaguna da Euskalerrri osoan *Kili-Kili* aldizkariak eta beronek daroazan jokabideak izan daben eragiña, batez be gure ume ta gaztetxuak euske-rea erabilten laguntzeko asmoetan.

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k beti izan dau kideko KILI-KILI'ren lan ori eta gaur be kideko dau, naizta gaurko legeak emon dabezan erreztasunajk bide dirala, jokabide orrek legezko bere buru-jabetza osoa lortu izan.

KILI-KILI'ren arduradunakaz, batez be gure lankide dogun Retolaza'tar Jose Antonio'gaz alkar lana egiñik, *Euskerazaleak* komik'en sariketea eratu eban ille batzuk dirala.

Komik'a egitean gauza bi artu bear dira gogoan: Idazkia ta irudia. Sariketa onetarako gauza biak eskatzen ziran, saria irabazteko gauza biak eginda ekarri bear ziran: Idazkia irudietara egokituta eta irudiak idazkira egokituta. Eta ondoren ederra lortu dau sariketa onek, batez be irudi-saillean. Idazkiak orraztu eta zuzendu bearrekoak dira geienak, orretarako, jakiña, idazleakaz eta marralariakaz berba eginda.

Iru sari ezarri ziran sariketa onetan: 1.^a 50.000 pezeta-koa; 2.^a 30.000 pezetakoa ta 3.^a 20.000 pezetakoa. Gai oneitan trebe diran ertilariak izendatu ziran maiko, baiña oneik arazo larri bat aurkitu eben. Lenengo saria guztiak batera dirala, norentzat izan argi ikusi arren, beste sari biak nori emon ebaztea ez zala gauza erreza. Zergaitik ori? Ba, komikak tankera ezbaridietakoak ziralako eta tankera bakoitxaren barruan, lan guztiak bardintsuak ertilan lez ikusita. Zer egin? Zein izan urtenbidea?

Maikoak aolku au eskiñi eutsoen EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ri. Sari bi orrein dirua moltzoratu eta sari-garriak ziranen artean banatu guztiai bardin emonaz. Sei izan dira lan sarigarriak eta amar milla pezeta sari biak osotzen daben moltzoa, orregaitik, eta zenbaki biribilla izan daiten sariena, amar milla pezeta gaiñeratu dauz Alkarreak eta bakoitxari 6.000 pezetako saria emon, guztiak bigarren sariaren maillakotzat artuta.

Ona emen sarituen eta sarien zerrendea:

- 1.º saria: 50.000 pezeta: Ruiz eta Fernandez'tar Jesus Antonio Bilbo'tarrari
- 2n. saria: 10.000 pezeta: Diaz eta Jaio'tar Juan Karlos Bilbo'tarrari.
- 10.000 pezeta: Torrezilla'tar Fernando Gasteiz'tarrari
- 10.000 pezeta: Fuente ta Arana'tar Ander Madrid'tarrari
- 10.000 pezeta: Gomez eta Azpiazu'tar Fernando Algorta'tarrari
- 10.000 pezeta: Donbriz eta Billasante'tar Oskar Bilbo'tarrari
- 10.000 pezeta: Diaz de Korkuera'tar Juan Luis Gasteiz'tarrari

Iragarrita dagoanez, zazpi lan saritu oneik, egilleen baiezenagaz, KILI-KILI Aldizkarian agertuko dira.

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k zorionik beroe-na opa dautse irabazleai eta biotzez eskerrik asko sariketa onetan kideko izan diran guztiai.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK